# ¡¡Odoloste - kordea jaurti...!!

Ezaguna izan ez bayatzu gaurtik aurera ezagun izango yatzu "Askotxu" eskekoa.

Ba - daike senitarte zabala izatea, guk baiña areba baten entzutea dogu. Munitubar'en abade kriada genduan askotxuren arebeol.

Aspaldian arebarik ikusteka egon ostean, juan zan egun batez arebeakana.

—Agertuaz —diñotso arebeak— aspaldian ez augu izan eta.

—Bai—dirautso Askotxu'k—etorj non ba; beti-beti toki baten ibiltea be ez don ona ta...

Jardunalditxoan alkari euron "pasadizuak" esan ostean arebeak, biontzako lapiko txikitxua-edo eukan eta.

—Zlortza'ra juan bear dok—dirautso—gaur Ziortza'n yaukok sermoia gure abadeak eta.

—Bai, baiña... alkondararik etxaukanat.

—Alkondarea neuk emongo daunt, abadiarenen bat izango dok kutxa bastaren baten eta.

Juan zan alkondara-bila; zartxurik ez eban idoro baiña ta besteak eskekoari emoteko onegi etsi ebazan, ausago. Ba-dator eskatzera ta.

—Or, ba; egin-egiñean, be, abadearen alkondara guztiak jabonaduran oindiño legortzeka dagoz—esan eutson nebeari—. Oraitiño alkondara ordez zapitxo zuri bat ipiñiko neuskizu paparean-geitu eban.

—Bai, baña... prakak, be, ipurdian zulotuta yaukanazat—dirautso Askotxu'k.

—Or be, trapu bat sartuko yuagu. Zuluok adibatu ebazan. Ba-dua Askotxu Gerikaitz alderunta.

* * *

Ba-uan eta berekautan atzetik norbaitek oiu.

—¡Askotxu!—dirautse atzetik norbaitek— Praka-zulotik alkondarea agiri yatzu.

—Daukadan "señalla"—erantzun dautso ta aurera tipi-tapa.

Arbazagi-aldean limosna eske atadi batera zan. Iñor ez zan agertzen Askotxu'ren eupadakaren.

Leio barutik, eskua luzatu ezkero artzeko moduan, odoloste-korde jodi jodi txiribilotua agiri zan. Lastor artu eban usaiña gure Askotxu'k. Sartu besoa ta artu eban. Kolkoan sartzeko egin eban, baiña kolkorik ez. Geritik esegita tapa-tapa aurera dua gure Askotxu.

Ziortza'ra zan eta sartu zan eleizan. Orduko abadeak sermoigiñan ziarduan. Askotxu eleizakatu zan une aretan, "Askotxu'k egiten dau lapuretan—iñuan abadeak lapureteari buruz ziarduan eta—alperik baiña, arimea salbau dagien ostutakoa atzera biurtu egin bear dabe-ta"—jarraitu eban oruada baten.

Askotxu'k "askotxuk lapuretan egiten daben" entzun ebanean bere kolkorako—zelan ete yakik nik lopuretan egin dodana?"—iñoan. Ostera, be, abadeak "askotxuk egiten dau lapuretan, bai, askotxuk"—iñuan.

Guztiz artegatuta, guztiz asare, alako jardunik jasan eziñik—"autsaz, be, autsaz, oneitxek ostu yuadaz ta, ta ixildu adi"—esanaz abadeari kulpitura jaurti odoloste-kordok eta arin atera zan eleizatik.

Ora gure Askotxa'ren asarea. Arezkero inguru oreitan ez dogu ikusi "Askotxu" eskekuoi. Bai beste batzuk baiña oneik ostu dabenik ez dakigu. Ostu dabenik-beintzat iñori ez dautse jaurti.

ARETXIÑAGA.

**AROTZ BAT TXARA DA EUZKADI'RENTZAT, BAÑA ASKOZAZ TXARAGO DA BERA EZAGUTURIK ABERTZALIA EZTAN EUZKOTARA.**